

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresako funtsezko baliabideak baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak izango dira. 4 baliabide hauek izan gabe, gure enpresa eta asmakizuna ez litzateke aurrera aterako.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoei dagokionez, beharrezkoa izango ditugu bulego batzuk lankideen artean erabakiak hartu ahal izateko, edozein arazo baldin badago arazo hauei irtenbidea emateko eta abar. Horrez gain, gure produktua hobetu ahal izateko, edozein modutako probak egiteko aukera izan dezagun edo erosleak etor daitezen laborategi moduko bat sortzea ondo etorriko litzaiguke. Era berean, ofizinak beharko genituzke gure langileek lan administratiboa eta finantzieroa bete dezaten.

Honekin loturik, finantza baliabideak funtsezkoak dira gure irizpideen baitan, diruaren kudeaketa oso garrantzitsua baita. Gure ofizianako langileak administrazioa kudeatzen ibiliko lirateke, diru-sarrerak igotzen saiatzen, kostuak jaisten, burtsan inbertitzen, merkatu berriak esploratzen...

Baliabide intelektualei dagokienez, gure enpresan lana egin ahal izateko, ikasketa batzuk beharko dituzu, Enpresaren Administrazio eta Zuzenbidea izango litzateke egokiena baina horrez gain, esperientzia ere kontuan hartuko litzateke. Gaitasunak ere garrantzitsuak dira guretzat, bai taldean lan egiteko gaitasuna garatua izatea eta bai bakarkako lanak, independienteki, aurrera ateratzeko ahalmena izatea. Gainera, funtsezkoa izango da hizkuntza batzuk menperatzea izatea, bai Euskara eta Gaztelaniera, eta baita Ingelesa ere. Oso ondo etorriko lirateke ere frantsesa edo baita beste hizkuntzaren bat ere.

Azkenik, giza baliabideak; hauek garrantzitsuenak dira gure ustez, hauek, soldata duin bat jasoko dute, haien lanaren exijentziari dagokiona. Gainera ordutegi flexibleak eta opor ugariak izango dituzte.